

• Baratze ekologikoa •

Deustuko tomate gazteak

Gaur egungo Euskal Herria ezagututa, Bilboaldeko porlanezko oihanean baratze ekologikoak daudela jakiteak bat baino gehiago harrituko du. Bi dira, baina, Deustuko Gazte Lokalekoek dauzkatenak, San Pedro eliz ondoan, Elizate zaharreko bihotzean, Guggenheim museotik ez oso urrun.

ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN



AURTEN hogeitun urte bete dituen Deustuko Gazte Lokalak hutsik zegoen alboko etxea, Txori-denda, bereganatu zuen orain dela hamalau hilabete. Atzealdeko lur-soroa eskuratzea ere lortu zuten. Hura garbitutakoan, auzokideen oniritzia duen ortua sortzeari ekin zioten. Tren geltoki ondoan dagoenak, bi baratzeetan zaharrenak, bost hilabete bete ditu dagoeneko. Galduta ziruditen Deustuko tomate ospetsuak herrira bueltatu dira: gaztetxeko Baratze Taldearen lana dugu hau.

“Kaletarrak izanik, hasiera batean ortua zer zen ere ez genekien”, azaldu digu Taldearen partaide Aitor Fernandez de Castrok; “nork bere eskarmentu txikia bazuen ere, oro har, gaztetxean bertan dagoena izan dugun lehenengo ortua da”. Auto-ikaskuntzan oinarritu da gaztetxeko Baratze Taldea: “Irakurri izan ahal dugunaz, eman dizkiguten aholkuez –egitasmoarekin interesatuta dagoen Ekologistak Martxan taldearenak, besteak beste– ikasten joan gara”. Emaizta oparoa eta uzta ederra ikusita, hain txarto ez dutela egin esan dezakegu. Taldea Gazte Lokaleko talde autonomo bezala ari da; bere burua kudeatzen du. “Hamar pertsona gara eta ortuak berak dakartzan lanen ardura hartu ez ezik, funtzionamendurako beharrezko tresneria ere geuk erosten eta konpontzen dugu”, dio Fernandez de Castrok. Ortu berriena Berrizerako bideko aldapan dago kokatuta. Bertan, pikon-

Azoka kontzeptua berreskuratu nahi dute. Ez dute kimika erabili nahi eta ongarri propioak sortzeko asmoa dute. Oilategia eta eztiorraza ere jarri dituzte martxan

doek gordeta, hamar zapalda daude: “Nahiz eta bakoitzak zapalda bana zaintzeko ardura daukan, denok denon ardurak hartzea dugu helburu; txandak egiten ditugun arren, badira guztion lana behar dutenak, hala nola sasiak eta belar txarrak kentzea edota inguruetan dagoen zaborra garbitzea. Horiek egiteko, normalean, lanegun bereziak antolatzen ditugu”. Uhazak, piperrak, tomateak, lekak, tipulak, kalabazak eta porruak erein dituzte. “Orain arte, oso ekoizpen ona izan dugu; emankorrak dira baratzeak. Nork bere etxera

ateratakoaren zati bana eroan arren, beste parte bat gaztetxeko jantokira zuzentzen dugu. Handik, jantokitik, sosarik ateratzen badugu, gaztetxearentzat izaten da. Dena dela, egin heinean ari gara gauzak pentsatzen, azoka kontzeptua berreskuratu nahi genuke”, azaldu du gaztetxeko kideak. Ez dute kimika erabili nahi eta ongarri propioak sortzeko asmoa dute.

Besteak beste, konposta egiteko toki aproposa prestatzen ari dira. Ura bertan dagoen ur-biltegitik lortzen dute.

Oilategia ere ipini dutela esan digu Fernandez de Castrok: “Denon artean jorratzen dugun lana da oilategia; hamabi oilo, oilar bat eta ahate bat ditugu, ez da gutxi”. Eztiorraza da Baratze Taldeak martxan jarritako azken proiektua: “Erleekin lan egiten duela hilabete hasi ginen; ikusiko dugu zelan ateratzen den”. Big Beñat Deustura iritsi da, antza. ■